

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Jarduera sailkatuaren lizentzia eskatzea

Jarduera instalatzeko udal lizentzia eskatu dute ondoren adierazten diren pertsonak, azaltzen diren lekuetarako:

Dosier-zenbakia: 2019/LACACT00051

Eskatzailea: A48167902

Jarduera: Neikerren Arkautiko nekazal eta elikadura campuseko ur zikinen tratamendurako hezegune artifiziala.

Kokalekua: Arkauti, z/g

Horrenbestez, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Legearen 58. artikuluan xedatutakoaren ildotik, jendaurrean jartzeko epea zabaltzen da, jarduera horiek nola edo hala eragiten dietela uste dutenek horiei buruzko dosierrak aztertzerik izan dezaten — Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Administrazio Zerbitzuan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behe), jendaurreko orduetan—, eta egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin, hamabost eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo lehenengo lanegunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 29an

Ingurumeneko administrazio-burua

EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ